

GAŠOTASUNAK

GAŠOTASUNAK ere bere itz bideak ekartzen ditu. Beraz samin garratzak izan arren askotan gašotasunak itz bide parragarriak izaten ditu ondoren,

Ez dago entzun besterik, erdi sendatuak kanpora irteten diranian beren echeetatik.

Batek, onlako izan duela, bestiak alako, emendik aunditu ta andik luzatu; azkenerako par egin biar zayote asko onlakoan esanai.

Geyenak asiko dira esaten, sendakiñak ezer ere ez dakitela, ez dutela gaitzik ezagutzen, ez sendabiderik asmatzen.

Bañan onlako edo alako atsok eman zioten belar edo enplastoren batekin sendatu zirala. ¡Sendakiñari begira egon bagiña!, izango da beren azkeneko itza.

Ez degu esango zer egin lezateken sendakiñak gašo bakoitzarekin, bañan azalduko deguna da, sendakiñak buruari jira egiñ ordurako bere kalte marmarizoka gelditzen dirala guziyak.

Ala ere danik okerrik chikiyena ikusi ordurako an dijoaz lasterka sendakiñaren billa.

Eta askotan oker aundirik gabe ere bai. Iritzi utzarekin zenbat aldiz.

Sendakiñak ezer ez dakite, ezer ez dute ulertzen, ezerchore ez sendatzen, bañan gašotasun chikiyena agertu ordurako lasterka sendakiñaren billa.

Abekin gertatzen da langilliakin echeetan gertatzen dana bera: lenbizi langilleak ezin echera ekarri, ta gero ezin echetik bigaldu. Ala esaten dute beintzat makiñabat echekoandrek.

Ori bera gertatzen da, edo orrelako ichurakoa sendakiñakin ere.

Lenbizi ezin echera ekarririk, gero nai baño nekezago alde egiten dute. Ori da beñepin askoren iritziya.

Sendakiñak esaten dituen gauzak ez dituzke askok biar bezela artzen; bai edozein andre zirtzillen berriketak.

Sendakiñak ez dakite gaitzaren berri, ¿Nola jakingo dute bada beti ori ikasten badabiltza? Baña edozein atsok bai, guziya badaki, ta ori ezerchore ikasi gabe.

Jayo egin biar orlako atso sorgiñak, eta beste kirten tontolapikuak ere bai. Batzuek esan eta bestiak chinistu, orra nolakuak biltzen diran asko, gašotasuna azaltzen danian.

Bakoitzaren gašotasuna bestiak izan dutenetik neurtzen dute. Onlakok, gaizki egon zanian, ištarreko karranpa izaten zuben, ¿zuk karranpa al daukazu?, beaz beste arren gaitza bera dezu.

Orra zeñen ederki asmatzen diran gaitzak.

¿Zertarako orduan sendakintza ikasten ibilli?

Ala esan lezateke askok; bañan onela itz egiten dutenak berak izaten dira larriyena gaitz chikiyena ulertu ordurako, itotzeko zoriyan sendakiñaren billa juateko.

¿Zertarako ordia inguruko atsuak, sendakiñik yayuenak baño gegyago badakite?

Esana bat izamnunbait eta izana bestia.

Ta esanetako gai ontan geonek ere zerbait esan genezaguke. Aitu beintzat egin izan degu naikua.

Erdi sendatuta kalera irten dan oyetako baten aurrian gašotasunez izketan asten bagera ez digu itzik amaitzen ere utziko.

Arrek daki guziya. ¿Nork, esaten du, jakin lezake nik bañon obeto, neronek gaitz ori igaro badet?

Eta askotan gertatzen da, gašo egon dan orrek ez dakiyela zer igaro duen ere.

Gezur ta abar, gaizkiyena zegonian ondo zegola esanaz, bat zube. nian bestia zubela adieraziaz, berotasun bat zubenian beste gezurrezkoa azalduaz; gašo egon dan bitartian ez du biar bada egi bat bakararra entzun.

Sendatzen asi danian berriz oraindik guchiyago.

Lenago guchitu bezela orain aunditu egiten dizkate igarotako nekiak, ogeita zortziko berotasuna izan badu, berrogeita bikua izan duela esango diote, ta ichura onetan gañerako gaizkieza guziyak.

Ala, beaz, ateratzen danian gure gašo izana erdi sendatuan, uste

oso osoan egoten da arrek igaro dituen nekiak ludia ludi dan ezker
ez dituela inork igaro.

¿Eta nor arren aurrian gañotasunaz itz egiten asi?

Guztiya badakiyela uste bai du, ta onenian ez daki zenbat egun
egin dituen oyian ere.

Bañan alare isildu biar.

Esango digu inork igaro ez dituen alako gaitzak igaro dituela, ba-
ñan, nunbait gogorra izan, sendua, bikaña, ta gaitz guztiyen gañetik
irten da.

Ta gauza abek esanaz badirudi atsegiñez gizendu biar dubela; ta
ala egingo balitz gaitzaren erdi izango litzake. Zerbait gizentzia ondo
biarrekuia izaten degu geyenak gaitz oyetako bat igarotzian.

—Onlako edo alakok, gaitz gogorra izanak izan biar dute bada,
esango du onenian batek, eta gaño egonduak erantzungo die: oyen
gaitzak jostaketa bat besterik ez dira izan, nere gañotasunaren aldame-
nian jartzeko.

—Ez dakit bada, esaten badu beste batek, alako beste ura zu baño
gaizkiyago egona izan biar du bada; erantzungo dio.

—Zer egon biar zuben.

—Bai jauna, bai.

—Ez ta nere aldekuia ere.

—¿Nola ez? Ura il zan beñepin ta zu oraindik bizi zera.

—Ura ilko zan, baña ni ura baño gaizkiyago egon nitzan.

Y.

